

“EBALUATZEKO MODUA ALDATU BEHAR DELA USTE DUGU”



Jokin Izar - Orokieta Herri Eskola | Lehen Hezkuntza Fisio [2. saria] [3. saria]

Jokin Izar, Asun Murorekin batera “Itegi” taldean eta Olatz Dorronsororekin “Allepunta” taldean, Orokieta Herri Eskolako (Zarautz) bi taldeon arduraduna da. Horiek lortu dituzte, hurrenez hurren, Lehen Hezkuntza Fisio kategoriako lehen eta bigarren postuak.

- Orokorrean, nola baloratzen duzue Kosmodisean parte hartzearen esperientzia?
- *Oso positiboa izan da, ikasleentzat eta irakasleentzat.*
- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?
- *Orokorrean, jardueraren inguruko guztia, baita bideoa egin eta simulagailuarekin jolastea ere.*
- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Oso pozik daude egin duten lanarekin.*
- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?
- *Aldaketek, hasieran, beti eragiten dute segurtasun eza, baina, hori gainditu ostean, gure iritzia positiboa da, onuragarriak izan direlakoan gaude.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?
- *Kosmodiseak talde-lana sustatzen du, teknologia berriekiko interesa areagotzen du eta foroetan parte hartzeko modua ezagutzen laguntzen du.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?
- *Ebaluatzeko modua aldatu behar dela uste dugu. Irekia izan beharko luke, irizpide batzuk ez dira ulergarriak maila horretako ikasleentzat.*

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?
- *Hasiara batean bai.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...
- *Arauak betearazi behar dira, bideoaren iraupenari dagokionez, esaterako. Horrez gain, ikasleen lana saritu beharko litzateke eta gainerako taldeen lana bakarrik ebaluatu, norberaren taldeari puntuaziorik eman gabe.*